ELGOIBARKO UDALAREN ARGITERIA PUBLIKOAREN ETA SEMAFOROEN ZERBITZU ENERGETIKOAK ETA MANTENTZE LANAK KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN PLEGUA

1.- AURREKARIAK
2.- XEDEA
4.- EZARPEN EREMUA
4.- BALDINTZA OROKORRAK
4.1.- Araudia betetzea
4.2.- Dokumentazioa
5.- ERABILERA LAGATZEA ETA INSTALAZIOA USTIATZEA
6.- ANTOLAKUNTZA ETA ZERBITZU OROKORRAK
6.1.- Oinarrizko funtzionamendu plana, zerbitzuaren antolakuntza.
6.2.- Langileak
6.3.- Ekipamenduak
6.4.- Garraiorako eta altxatzeko baliabideak
6.5.- Azalera eta ordezko piezen stock-a edukitzea
6.6.- Administrazio zerbitzuaren informazioa
6.7.- Instalazioen inbentarioa egitea
6.8.- Guardiako zerbitzua
7.- INSTALAZIOAREN KUDEAKETA ENERGETIKOA – P1 PRESTAZIOA
7.1.- Fakturak kudeatzea
7.2.- INSTALAZIOAREN gidaritza eta zaintza kudeatzea
7.3.- Funtzionamenduaren jarraipena kudeatzea
7.4.- Instalazioaren planoak eta inbentarioa egitea
8.- MANTENTZE ETA IKUSKATZE LANAK – P2 PRESTAZIOA
8.1.- Mantentze Prebentiborako Plana egitea.
8.2.- Erregulazio eta kontrol ekipamenduetan gutxieneko mantentze prebentiboa egitea
8.3.- Maniobra koadroetan gutxieneko mantentze prebentiboa egitea
8.4.- Luminarietan gutxieneko mantentze prebentiboa egitea
8.5.- Linea elektrikoetan gutxieneko mantentze prebentiboa egitea
8.6.- INSTALAZIOA ikuskatzea
8.7.- INSTALAZIOAREN arauzko egiaztapena eta ikuskapena
8.8.- Mantentze Zentroa
9.-. BERME OSOA. – P3 PRESTAZIOA
9.1.- Instalazioa segurtatzea
10.- HOBEKUNTZA LANAK EGITEA ETA KANPOKO ARGITERIAREN INSTALAZIOAK BERRITZEA – P4 PRESTAZIOA
11.- BESTELAKO JARDUERAK
11.1.- Elgoibarko udalerriko argi-altxatzea
11.2.- Instalazioak indarrean dauden araudira egokitzea eta birmoldatzea
11.3.- Elektrizitatea lapurtzea, kanpoko obrak eta bestelako arrazoiak
11.4.- Etorkizuneko instalazioak
11.5.- Ezusteko jarduerak
12. KONTRATUA IRAUNGITAKOAN INSTALAZIOAK ITZULTZEA ETA HORIEN HARRERA EGITEA
A1 ERANSKINA: LED teknologia duten kanpoko CEI-IDAE luminariei eskatu beharreko betebehar teknikoak
A2 ERANSKINA: Led teknologia duten kanpoko luminarientzat beharrezkoak diren egiaztagiriak eta saiakuntzak
B ERANSKINA: Led argiztapen teknologia duten kanpoko luminariek bete beharreko gutxieneko baldintza teknikoak
C ERANSKINA: Dauden luminariak LED teknologiara egokitzeko bete behar diren gutxieneko baldintza teknikoak

D ERANSKINA: Aginte eta kontrol guneek bete behar dituzten gutxieneko baldintza teknikoak

E ERANSKINA: Urrunetik kudeatzen diren aginte guneak kontrolatzeko bete behar diren gutxieneko baldintza teknikoak

F ERANSKINA: Linea buruetako egonkortzaile-erreduktoreentzako gutxieneko baldintza teknikoak

G ERANSKINA: Proiektu luminoteknikoa Argi kalkulu justifikatzailea

H ERANSKINA: Auditoria energetikoa udalerriko kanpoko argiteria publikoan

1.- AURREKARIAK

2018. urteko kanpoko argiteria publikoaren auditoretza energetiko bat badago, non garai horretako instalazioen baldintzak, bide publiko bakoitzerako aldaketa-proposamen bat, auditoretzak proposatzen duen konponbiderako egin beharreko obren zenbatekoa eta amortizazioa itzultzeko aurreikusitako epeak jasotzen baitira. Ikuskaritza hori Plegu Teknikoaren H eranskinean erantsi da, informazio gisa soilik.

Lizitatzaile bakoitzaren proposamenak, beraz, auditorian aurreikusitako irtenbidearen kalitatea bete behar du gutxienez, eta lizitatzaile bakoitzak ulertzen duen irtenbide hobea proposatu ahal izango du eraginkortasun energetiko handiagoa lortzeko.

2.- XEDEA

Baldintza Teknikoen Agiri honen xedea da Elgoibarko Udalaren kanpoko argiteria publikoaren instalazioetako eta semaforo-instalazioetako (aurrerantzean, instalazioa) energia-zerbitzuak kontratatzeko eta erabateko bermearekin mantentzeko arautu beharko diren prestazioen gutxieneko irismena eta baldintzak arautzea eta definitzea.

Zerbitzua ematearen helburu nagusia da energia hobetzea, efizientzia handitzea eta aurreztea aurreikusten duen energia zerbitzua eskaintzea, erantsitako Kanpoko Argiztapen Publikoaren auditoretzarekin bat etorriz, udalerriko kanpoko argiteria publikoak behar bezala funtzionatzen duela ziurtatuz, instalazioak proiektatzeko erabili zen zerbitzu mailari eutsiz eta, hala badagokio, konponketak, birjarpenak, hornikuntzak, hobekuntzak eta aldaketak eginez.

Kontratatu beharreko zerbitzuen helburua nahitaezko prestazio hauek egitea da:

- P1 prestazioa - Kudeaketa energetikoa: argiteria publikoaren sareko elektrizitatea osatzen duten instalazioen, Gabonetako argiteriaren eta semaforoen instalazioen kudeaketa energetikoa. Esleipendunak berehala jakinarazi beharko dio Udalari elektrizitate-hornidurarен edozein akats edo hura arriskuan jar dezakeen edozein gorabehera, Udalak, kontratuen titularra den aldetik, gorabehera horiek konpainia hornitzailearekin kudeatu ditzan. Udalak konpainia hornitzailearekin izapideak egiteko eskatu ahal izango dio EZEri (Energia Zerbitzuen Enpresa).

- P2 - Mantentze-lanak: Elgoibarko kanpoko argiteria publikoaren sarea osatzen duten instalazioen funtzionamendu eta garbitasun egokia bermatzeko beharrezkoak diren ohiko mantentze-lanak, programatuak eta prebentziozkoak, osagai eta semaforo guztietan, eta instalazioen errendimenduak eta osagai guztiek hasierako balioan iraun dezaten. BTBPn prestazio horren gutxieneko nahitaezko jarduerak jasotzen dira.

- P3 prestazioa- Berme osoa: Elgoibarko kanpoko argiteria publikoaren sarea osatzen duten instalazioetan hondatutako elementu guztien eta semaforoen mantentze zuzentzailea egitea, horiek konpontzea eta, hala badagokio, ordeztea, BTBPn arautzen denaren arabera, Berme Osoarekin.

- P4 prestazioa - Kanpoko argiztapen instalazioak hobetzeko eta berritzeko obrak-: prestazio honetan sartzen dira, nahitaezko gutxieneko izaerarekin, energia kontsumitzen duten instalazioak hobetzeko eta berritzeko beharrezkoak diren inbertsio guztiak, egindako auditoretzaren dokumentuaren zehaztapenetan jasota daudenak (Baldintza Teknikoen Pleguari erantsita zaio). Horren baitan sartzen dira hornitzea, instalatzea, martxan jartzea eta behin-behineko harrera egitea, eta hala badagokio,

hornitu behar diren edo energia egiaztatu behar duten gailuen hornikuntza eta behin-behineko harrera egitea ere.

Aipatutako prestazioez gain, kontratu honen bidez energia-efizientziaren hobekuntza sustatu nahi da, energiaren aurrezpena eta efizientzia sustatuko duten ekipoak eta instalazioak sartuz.

Instalazio horiek esleipendunak aztertu, proposatu eta gauzatuko ditu.

Kontratatutako Energia Zerbitzuen Enpresa (aurrerantzean EZE) arduratuko da prestazio horiek eskaintzeaz, eta Udala gainbegiratze lanak egiteko beharrezkoa den egitura teknikoa izatera mugatuko da, planak ezartzeko, lanak koordinatzeko, lanak kontrolatzeko eta, oro har, prestazioak beren eskakizunak betetzeko moduan daudela egiaztatzeko eta ziurtatzeko.

3.- EZARPEN EREMUA

EZEk egin beharreko lanek barne hartzen dituzte Kanpoko Argiteria Publikoaren Sarera konektatutako instalazio guztiak eta Elgoibarko Udalaren udal barrutian dauden semaforoak eta horien osagai guzti-guztiak (aurrerantzean, INSTALAZIOA).

4.- BALDINTZA OROKORRAK

EZEk kontratua formalitzatzen den unean dagoen egoeran hartuko du INSTALAZIOA, instalazioaren ardura hartuko du eta horri dagokion zerbitzua emango dio instalazioari, Plegu honen zehaztapenen arabera. Horren haritik, EZEk aditzera ematen du honako gai hauen inguruko erabateko ezagutza duela:

a) INSTALAZIOAREN izaera.
b) Gestionatu behar dituen ekipamendu eta instalazio guztien egoera.
c) Sarbide baldintza bereziak, instalazioen segurtasunarekin eta espezifikotasunarekin zerikusia dutenak.

Egungo INSTALAZIOA onartuta, instalazioaren mota, egoera eta kalitatea edozelakoak direla ere, bertan dauden elementuak mantendu beharko ditu, eta ezingo ditu horien ordez beste batzuk jarri, Plegu honetan zehaztutako kasuetan izan ezik, edo bestela, Elgoibarko Udalak, aurrez, horretarako baimena ematen ez badu.

4.1.- Araudia betetzea

Lizitazio honen xede diren lanen ondorioz eskaini beharreko prestazio guztiak eskaintzeko, arlo teknikoan eta osasunaren eta garbitasunaren arloan indarrean dauden araudi guztiak bete beharko dira. Horiek ez ezik, instalazioen ezaugarriak direla eta, ezar daitekeen beste edozein araudi ere kontuan izan beharko da.

Nagusiki, Behe Tentsioko Araudi Elektroteknikoa (REBT) eta horren jarraibide teknikoak bete beharko dira, eta batez ere, ITC-BT 09 jarraibidea, segurtasunerako baldintza bereziak dituen kanpoko argiteriaren instalazioei buruzkoa. Era berean, honako hauek bete beharko dira: Kanpoko Argiteriaren Instalazioetako Efizientzia Energetikoari buruzko Araudia (REEIAE) eta horren osagarri diren ITC-EA-01 – ITC-EA-07 jarraibideak; ekipamendu eta antolaketa elektrikoen homologazioan eragina izan dezaketen elektrizitatea banatzeko lineei energia hornitzen dieten enpresentzat indarrean dauden araudi bereziak, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak onartutakoak, Elgoibarko Udaleko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra eta horri

buruzko Udal Ordenantzak.

Honako xedapen hauek ere izango dira kontuan:

- **Behe Tentsioko Araudi Elektronikoa**, 842/2002 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa; eta bereziki, ITC-BT 09 jarraibidea, segurtasunerako baldintza bereziak dituzten kanpoko argiteriaren instalazioei buruzkoa.
- **Kanpoko argiteriako instalazioen efizientzia energetikoari buruzko araudia,** 1890/2008 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, eta Araudiaren eranskin gisa txertatzen diren Jarraibide Osagarri Teknikoetan jasotzen diren baldintzak eta arauak, eta hain zuzen ere, ITC-EA-01 - ITC-EA-07.
- **Industriako kalitaterako eta segurtasunerako azpiegiturari buruzko Araudia**, 2200/1995 Errege Dekretua, abenduaren 29koa, hain zuzen ere, agiri bidez baldintza tekniko guztiak betetzen direla egiaztatzeari dagozkion gai guztietarako; ENAC-ek Kreditatutako Egiaztagirien bidez, AENORen Egiaztapen Batzorde Teknikoak eskatutako eta onartutako saiakuntzetarako, eta N Marka duten luminarien, lanparen eta horiei loturiko ekipamenduen saiakuntzetarako.
- **21/1992 Legea, uztailaren 16koa, Industriari buruzkoa,** eta hain zuzen ere 20. artikuluaren 6. atala, Herri Administrazioei produktu normalizatuen erosketa sustatzeko betebeharra ezartzen diena.
- **AENOR edo UNE Arauak edo Zehaztapenak,** hala erregulazio sistemei, nola kanpoko argiteriaren luminariei eta horien euskarriei dagozkienak.
- **Argiztapenaren Batzorde Espainiarraren (CEI) Gomendioak eta Energiaren Dibertsifikaziorako eta Aurrezpenerako Institutuarenak (IDAE),** Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioari atxikita dagoen enpresa erakunde publikoarenak. Gomendio hauek "Kanpoko Argiteria Erregulatzeko eta Kontrolatzeko Sistema Efizienteak" izenburua daraman Argiztapenaren Efizientzia Energetikoari buruzko 5. Koadernoan argitaratu ziren.
- **LED teknologia duten luminariei eskatu behar zaizkien Baldintza Teknikoak, Kanpoko Argiztapenaren Batzorde Espainiarraren (CEI) eta Energiaren Dibertsifizkaziorako eta Aurrezpenerako Institutuarenak (IDAE).**

EZEk beharrezkoa den ingeniaritza jarriko du instalazioak behar bezala legeztatuta edukitzeko bidezkoak diren tramite guztiak egiteko. EZEk izango du bost urtean behin egin behar diren nahitaezko aldizkako ikuskapenak egiteko ardura (>5kW baino gutxiagoko kontratuentzat. Aitzitik, ez du ikuskapen horietan, aterako diren konponketak, Kontrol Erakunde Baimenduak (OCA) egingo dituen aktetan jasota geldituko direnak, egiteko ardurarik izango; izan ere, lizitazioaren helmenak ez ditu bere baitan hartzen konponketa horiek.

EZEk, Aparailu Elektrikoei eta Elektroteknikoei buruzko otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretua betetzeko, Hitzarmen bat sinatuta eduki beharko du, arestiko Errege Dekretuaren 1. Eranskinaren 5. kategorian sartuta dauden Argiteria Aparailuen Hondakinak Kudeatzeko Sistema Integraturako (argi iturriak, luminariak eta ekipamendu lagungarriak). Horretaz gain, hitzarmenaren egiaztagiria aurkeztu beharko du.

Era berean, EZEk modu frogagarrian egiaztatuko du kendutako lanparak edota luminariak horrelako lanak egiteko baimenduta dagoen birziklatze insatalzioren batera bidaltzen direla. Lanparen kasuan, LER 200121 kodedun Hondakin Arriskutsuen Kudeatzaile Baimenduaren bidez egiaztatuko da instalazio horretara eraman direla. Horretaz gain, lanparen nahiz luminarien kasuan, egiaztagiri bat aurkeztu beharko du, hondakinak birziklatze plantan sartu izanari

buruzkoa.

4.2.- Dokumentazioa

EZEk udalerriko dokumentazio guztia gorde beharko du, kontratua indarrean dagoen bitartean sortuz joango dena, eta Elgoibarko Udalari emango dio kontratua bukatutakoan, formatu digitalean. Hala ere, egindako txostenen uneko kopiak emango ditu, hain zuzen ere, egiaztagiriei eta sortuko diren beste agiri batzuei buruzkoak.

Elgoibarko udalak interesekotzat joko duen dokumentazioa eskuratu eta une oro eskatu ahal izango du.

5.- ERABILERA LAGATZEA ETA INSTALAZIOA USTIATZEA

Elgoibarko Udalak, Kontratu honen bidez, INSTALAZIOAren erabilera eta ustiapena lagako dizkio esleipendunari, EZEri, eta honek, onartu egingo du, ondoren zehaztuko diren baldintzei jarraiki.

EZE, Kontratua sinatzen den unetik aurrera, INSTALAZIO hori erabiltzearen eta ustiatzearen arduradun bakarra izango da, eta instalazioaren xedeak eskatzen duen ardurarekin eta kontuarekin zainduko du, eta Elgoibarko Udalak hori erabiltzeko eta mantentzeko emango dituen jarraibideen arabera baliatuko du. Halaber, erabilera eta funtzionamendu egoera ezin hobean mantenduko du, eta beraz, EZE izango da Zerbitzu Publiko hau eskaintzean, lan horiek egitean izango diren hutsegiteen edo arduragabekerien ondorioz, sor daitekeen kalte ororen arduradun bakarra.

INSTALAZIOA kontratu honetan aurreikusitako xederako bakarrik erabili ahal izango da.

EZEren kontura izango dira INSTALAZIOAK erabileraren, ustiaketaren, mantentzearen, kontserbazioaren eta konponketen ondorioz behar izango dituen gastu guztiak, ohikoak nahiz apartekoak.

Kontratu honek indarrean dirauen bitartean, INSTALAZIOA osatzen duten atalak edo elementuak ezin izango dira transformatu, aldatu, ezabatu, kendu edota eraldatu, baldin eta Elgoibarko Udalaren Kontratuaren Udal Arduradunak, aldez aurretik, horretarako berariazko baimena ematen ez badu.

6.- ANTOLAKUNTZA ETA ZERBITZU OROKORRAK

6.1.- Oinarrizko funtzionamendu plana, zerbitzuaren antolakuntza.

Lizitatzaileek zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko plana aurkeztu beharko dute, eta bertan, bereziki, honakoak zehaztuko dituzte:

- Zuzeneko langile guztien **organigrama** xehakatua, hau da, zerbitzura atxikita egongo diren langileena, eta sortuko diren premiak estaltzeko egongo diren langileena. Atxikitako langile guztien ordutegiak zehaztuko dira.
- Maila guztietan aurreikusitako **kategorien zerrenda** eta horiei dagozkien funtzioak.
- **Ibilbideen eta kontrolerako bitartekoen planifikazio operatiboa.** Lantalde bakoitzak programatutako lanak zehaztuko dira, eta horiek zein ordutegitan egingo diren. Ordutegien planifikazioa ere egin beharko da.
- Aurreikusitako **ibilgailuen eta baliabideen** zerrenda.

- Kontratua **abian jartzeko egutegia.**

Enpresa esleipendunak kontratuaren ordezkari bat, nahikoa izango den titulazio teknikoa eta esperientzia egiaztagarri zabala izango duen argiteriaren arloko teknikari espezializatu bat izendatuko du Udalarekiko baliozko solaskide gisa, kontratuaren bilakaera egokia kontrolatzeko.

Arduradun hau izango da zerbitzua ordezkatzeko baliozko solaskidea izango dena, eta aldiro bertaratuko da, eta Udalak eskatzen duen guztietan ere bai, zerbitzuaren gorabehera nagusien berri emateko.

Kontratuaren arduradunak estaldura handiko telefono mugikorra izango du, une oro, edozein unetan lokalizatuta egoteko. Posta elektronikoko kontu bat ere izan beharko du, kontratuaren bilakaera egokia izan dadin bidezkotzat jotzen diren gorabeheren berri emateko.

6.2.- Langileak

Kontratistak, une oro, beharrezkoak diren langileak izan beharko ditu, plegu honetako lan espezifiko guztiak egiteko lain izango direnak, beharrezkoak diren baldintzetan.

Kontratua bukatutakoan, Udalak eskatutako betebeharrak betetzeko, enpresak Udalaren esku jarri dituen langileak ez dira subrogatuko.

Kontratistak, eskaintzaren barruan, zerbitzuari buruzko Organigrama osoa aurkeztu beharko du, egin nahi duen moduan, eta plantilla era egokian zehaztu beharko du. Horretaz gain, haren langileek beteko dituzten lanpostuak zehaztuko ditu. Langileak lanaldi osoan edo partzialean eskainiko dute zerbitzua.

Kontratistak, hasieratik, eskainitako organigraman eta plantillan aurreikusitako langile guztiak izan beharko ditu, eta, kontratuak indarrean dirauen bitartean, ez da onartuko hirurogei egun baino gehiago igaro ahal izatea zerbitzua emateko plantilla osoa izan gabe.

Kontratua hasi eta bi hilabete igaro ostean, esleipendunak komenigarritzat jotzen baldin badu organigrama aldatzea, aldi baterako edo behin betiko, zerbitzuen premietara hobeto egokitu ahal izateko, Udalari proposatuko dio, eta nolanahi ere, honek emango duen ebazpena onartu beharko du.

Kontratistak, dena dela, Pleguaren zehaztapenak bete behar dituenez, plantillako langileek prestazioa kontratuan eskatutako kaliatearekin eskaintzen ez badute, plantilla onartu beharko du, bere eskaintzaren prezioak aldatzeko aukerarik izan gabe.

Baldintza orokorrak: kontratistak Organigraman aurreikusitako langileak izango ditu Pleguaren eskakizunak behar bezala asetzeko, eta langileen ordainskariak, pizgarriak, aparteko ordainsariak, gizarte aseguruak e.a. ordainduko ditu. Horiek, edozelan ere, indarrean dagoen legedian eta ezarri beharrekoak diren hitzarmen kolektiboetan xedatutakoa bete beharko dute.

Kontratistak Udalak eskatutako informazioa emango du, indarrean dauden lege araudiak betetzen direla kontrolatzeko.

Zerbitzuburua: esleipendunak arduradun tekniko bat izendatu beharko du, eta hauxe izango da Kontratistaren eta Udalaren arteko zerbitzuari buruzko gaietarako baliozko solaskide bakarra. Solaskide hau eskatutako bileretara joan beharko da, zerbitzuari buruzko gaiak aztertzeko.

Dokumentazioa: kontratako langile guztiek, zerbitzuari atxikita daudenek, kontratistak berak emandako nortasun txartel plastifikatu bat eraman beharko dute.

Laneko arriskuen prebentzioa: enpresa lizitatzaileek egunean izan beharko dituzte haien betebeharrak, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak, Prebentzio Zerbitzuei buruzko Araudiak eta Laneko Arriskuen Prebentzioarekin zerikusia duten gainerako araudi partikularrek eskatutakoaren arabera.

Arestian adierazitakoa egiaztatu ahal izateko, adierazitako unean, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

1. Enpresan prebentzioaren kudeaketarako ezarri den sistemaren laburpena; hala badagokio, kanpoko prebentzio zerbitzuaren kontratua eta egin beharreko lanei eta azpikontratazioei atxikitako pertsonen kopurua.
2. Segurtasun eta osasun plana eta laneko arriskuen prebentziorako teknikari arduradun baten izendapena, eta horretaz gain, EZEn parte hartuko duten langileen gaitasunari buruzko mediku ziurtagiriak, ibilgailuak eta makineria erabiltzeko gaituta dauden langileek prebentzioaren alorrean jaso duten prestakuntzari buruzko egiaztagiriak. Hori guztiori kontratuaren zuzendaritzari aurkeztu beharko zaio, ustiaketa hasi aurretik.

Kontratistak segurtasunerako eta istripuen prebentziorako elementuak, gaur egun mota honetako lanetan erabiltzen direnak, eman beharko dizkie langile guztiei, eta beharrezkoak diren neurriak hartu beharko ditu, babeserako elementu horiek egiaz erabil daitezen. Bestalde, kontratistak bakarrik izango du kontrataren langileek izan ditzaketen istripuen gaineko erantzukizuna.

Organigramari, gutxieneko langileei, baliabideei eta abarrei buruzko informazio guztia islatu egin beharko da lizitatzaileak eskaintzan aurkeztuko duen antolakuntzari buruzko azalpen memorian.

6.3.- Ekipamenduak

Kontratistak Pleguan zehaztutako eskakizunak asetzeko beharrezkoa den ekipamendua izan beharko du, bai neurketa aparailuei dagokienez, bai haren langileek maneiatuko dituzten gainerako elementuei eta lanabesei eta jarriko zaizkien ibilgailuei dagokienez; eta zerbitzuaren eskaintzaren dinamika funtzionalaren eta operatiboaren ondorioz, eta halaber, argi puntuen kopurua handitzearen ondorioz, eta kontratuak indarrean dirauen bitartean sortuko diren beste premia batzuei erantzuteko premiaren ondorioz eskuratu beharko direnak ere izan beharko ditu.

Kontratistak kontratuaren xede diren helburuak lortzeko beharrezkoak diren baliabide materialak eta mekanikoak mantentzeko betebeharra izango du.
Elgoibarko Udalak nahi duenean egiaztatu eta berrikusi ahal izango du ekipamendua, zerbitzuaren eskaintzan eragin gabe edo horren kostuan ondorio negatiboak izan gabe. Kontratistari beharrezkoa den laguntza guztia emango dio, hori efikaziaz eta azkartasunez egin ahal izan dadin.

Kontratistak, gutxienez, ondoren adieraziko den ekipamendua izan beharko du, eta hori ikuskapenetan edo egiaztapenetan erabiliko da.

- Isolamenduen eta lurren neurgailua
- Tenaza voltamperimetrikoak eta faseamperimetrikoak langile bakoitzarentzat.

- Voltimetro-amperimetro erregistradorea.
- Tentsio erregistradorea.
- Intentsitate erregistradorea.
- Harmonikoen sareko aztertzailea.
- Lurrazpiko kableen jarraikortasunaren detektagailua.
- Iluminantzien neurgailu kalibratua.
- Sentsore luminikoa, GPSa duena.
- Kamera termografikoa
- Laser telemetroa

Neurketa aparailu guztiak erabiltzeko egoera ezin hobean egon beharko dira eta EZEk horiek egiaztatu beharko ditu aldizka, zuzen neurtzen dutela segurtatzeko, tresna bakoitzaren arabera, onargarriak diren erroreekin. Iluminantzien neurgailua behar bezala kalibratu beharko du erakunde independenteren batek.

Horretaz gain, EZEk honako hauek izan beharko ditu:

- Erremintak, eskailera, e.a. EZE behartuta egongo da bere langileek egin beharreko lanak segurtasunez, kalitatez eta efikaziaz egiteko beharrezkoak diren lanabesak edukitzera, praktika onen arabera.
- Udalerri osoan entzuten den eta misio perfektua duen transmisio-sistema. EZEk zehaztasunez adieraziko du eskaintzan zein komunikazio sistema eskaintzen duen.

Makineria, ekpamenduak, e.a., xehetasun handiz deskribatuko dira lizitatzaileak eskaintzan aurkeztuko duen eta baloratuko den zerbitzuaren antolakuntzari buruzko Memorian.

6.4.- Garraiorako eta altxatzeko baliabideak

EZEk beharrezkoak diren ibilgailuak izango ditu, eta horien ezaugarriak izango dira kontratuan eskatutako prestazioak ahalik eta azkarren, eta bizilagunei eta herri bideetako erabiltzaileei, edo bestela, eskaintzan eskatzen duen guztiari ahalik eta eragozpen txikienak egiteko modukoak. Garraiorako baliabide hauek ahalmena izango dute eta nahikoa izango dira, beharrezkoa den premiarekin, egin beharreko lanetarako materialak, bitarteko lagungarriak, teknikariak eta langileak eramateko, eta halaber, instalazioen zaintza egokia egitera bideratuta dauden aldizkako errondak egiteko. EZEk bere eskaintzan zehaztuko dituen ibilgailuak efizienteak izango dira eta ingurumena errespetatzen dutenak.

EZEk, bere eskaintzan, ibilgailu arin eta astunen zerrenda zehaztuko du, eta plataforma jasotzaileak (potentzia eta altuera), baita horien ezaugarriak ere. Era berean, ibilgailuetan instalatutako komunikazio gailuak deskribatuko ditu.

Lizitatzaileak zehatz-mehatz justifikatu beharko du bere eskaintzan zerbitzua exekutatzeko eskainiko duen ibilgailu kopurua. Horren haritik, gutxienez, honako ibilgailu hauek dituela egiaztatu beharko du:

- Kamioi-saskia 14 m-ko edo hortik gorako altuerarentzat, komunikazio sistema eta GPSa dituena.

6.5.- Azalera eta ordezko piezen stock-a edukitzea

Argiteria publikoa kontserbatzeko zerbitzu ona ziurtatzeko, EZEk jasota utzi beharko du bere eskaintzan zerbitzua eskaintzeko dituen instalazioei buruzko proposamena.

Era berean, EZEk sor daitekeen edozein matxurari edo istripuri aurre egiteko duen stock-a justifikatu beharko du.

6.6.- Administrazio zerbitzuaren informazioa

Aldizka, hilero, kontratistak komunikatu bat aurkeztuko dio Elgoibarko Udalaren arduradunari, non antzemandako eta konpondutako gorabeherak zehaztuko baitira, eta konpondutako argiguneen kopurua, gorabehera mota eta konponketaren eguna ere bai. Kudeaketa sistema bat txertatuta, Udalak aukera izan behar du une oro eguneratutako datu basera sartu ahal izateko.

Koadro guztiek urruneko kontrolerako sistema adimentsua izan beharko dute. Sistema instalatuta eta erabilgarri egon beharko da, eta mantentze lanen eta komunikazioaren kostuak esleipendunaren kontura izango dira, lizitatzaileak bere proposamenean eskainiko dituen kontratu urte guztietan.

Halaber, urruneko kudeaketarako sistemaren ezaugarri teknikoak E Eranskinean zehaztutakoak izango dira.

6.7.- Instalazioen inbentarioa egitea

Kontratistak, P4 prestazioa bukatu ondoren, argiteria publikoaren inbentario informatizatua aurkeztu beharko du, baita plano digitalizatu bat ere, non maniobra koadroak eta argiguneak islatuko baitira. Planoa GIS formatura esportatzeko modukoa izan beharko da. Hain zuzen ere, argiteria sare guztiaren kartografia bat emango da, eta dauden argiguneak zehaztuko dira (kode zenbaki eta guzti), baita maniobra koadroak (kode zenbaki eta guzti) eta CUPS direlakoak ere.

Argiguneak eta maniobra koadroak kontrolatzeko eta kontserbatzeko funtzioak emateko, identifikazio kode bakoitza aipatuko da.

Lizitatzaileek haien eskaintzetan zehatz-mehatz azalduko dute erabili nahi duten sistema informatikoa, funtzionamenduaren ezaugarriak eta gorde eta kudea daitezkeen datuak.

6.8.- Guardiako zerbitzua

24 orduko guardiako zerbitzu etengabea izango da, baita jaiegunetan ere, hartara, urteko egun bakar batean ere zerbitzua artatu gabe gera ez dadin.

Beharrezkoa izanez gero, guardiako langileek haien jardueretarako beharrezkoak diren ibilgailuak eta materialak izan beharko dituzte.

EZE arduratuko da eguneko argirik gabeko orduetan edo jaiegunetan gertatzen diren anomalien ondorioz egin behar diren lanak egiteaz, honako lehentasun hurrenkera honi jarraiki: pertsonen edo gauzen aurkako balizko arriskuak, instalazioaren narriadura handiak, trafikoaren zailtasunak, elkarren ondoan dauden argiguneei eragiten dieten matxuren konponketak, e.a. Horretarako, Udalak edo Udaltzaingoak emango dizkioten jarraibideak bete beharko ditu.

Era berean, Enpresako teknikariei gertatzen diren anomalien (horien garrantziak hala jokatzea gomendatzen badu) eta horien arrazoien (arrazoiak zein diren jakinez gero) berri emateaz arduratuko da, baita Udaleko langileei, Udaltzainei, energia hornitzen duen Konpainiari, eta abarri ere.

7.- INSTALAZIOAREN KUDEAKETA ENERGETIKOA – P1 PRESTAZIOA

INSTALAZIOAREN kudeaketa energetikoak, P1 Prestazioan jasotzen denak, instalazioaren funtzionamendua egokia izateko beharrezkoak diren egokitzapenerako, zaintzarako eta kontrolerako jarduera guztiak hartuko ditu bere baitan. Instalazioaren funtzionamendurako behar den energia, berriz, Elgoibarko Udalaren kontura izango da.

7.1.- Fakturak kudeatzea

EZE arduratuko da argiteria publikoaren funtzionaltasuna era egokian kudeatzeaz, horretarako instalazioaren kontsumoa arrazoizkoa izan dadila kontrolatuko du une oro, eta kontratuaren baitan jasota dauden instalazio guztien kontsumoetan egon daitezkeen aldaketa guztien berri emango dio udalari.
Era berean, Udalak hala eskatuz gero, sortzen diren matxura guztiak, argiteria publikoarekin zerikusia dutenak, kudeatuko ditu energia hornitzen duen enpresarekin.

Udalak, enpresa hornitzailearekiko kontratuen titular den aldetik, fakturak kudeatuko ditu; EZEk, Udalak hala eskatuz gero, kontsumoarekin zerikusia duen edozein datu egiaztatuko du.

7.2.- INSTALAZIOAREN gidaritza eta zaintza kudeatzea

EZEk bere ardurapean honako jarduera hauek egingo ditu:

- Kanpoko argiteriaren instalazioak piztea eta itzaltzea.
- Beharrezkoak diren erregulazioak.
- Ekipamenduen funtzionamendu-parametroen, eta aldi berean, ekipamenduak ondo dabiltzala egiaztatzeko saioen eta maniobren segimendua egitea.
- Instalazioen zaintza orokorra.
- Ohiko errondak eta ikuskapenak

EZEk, urteko hainbat garaitan, INSTALAZIOA piztu eta itzaliko du, alderdien adostasunarekin funtzionamendurako ezarriko den ordutegiaren arabera, eta, ordutegi horretan, ez da bost minututik gorako desbideratzerik onartuko (gora edo behera).

Kontratua hasi eta bi hilabeteko epean, EZEk egiaztatu egin beharko du ez dagoela desbideraketarik INSTALAZIOA pizteko eta itzaltzeko sistemen artean, eta desbideratzeren bat izanez gero, horiek zuzendu egingo ditu. EZEk txosten bat egingo du ikuskapenaren emaitzarekin, eta Elgoibarko Udalaren Kontratuaren Udal Arduradunari emango dio.
Instalazioak pizten eta itzaltzen direla kontrolatzeko, eta halaber, argiaren fluxua gutxitzeko, EZEk ikuskapenak eta egiaztapenak egiteko programa bat proposatuko du, edo bestela, okerreko funtzionamendu oro antzemateko eta zuzentzeko aukera emango duen kudeaketa sistemaren bat.

EZEk bere kontura egingo ditu aginte koadroak itzaltzeko eta pizteko ordutegiaren aldaketak, hain zuzen ere, Elgoibarko Udalak adieraziko dizkionak.

Elgoibarko Udalak proposatutako ordutegia berrikusi ahal izango du EZEk, energia optimizatzeko helburuarekin. Horretarako, eta hobekuntza obren parte gisa, efizientzia energetiko handiagoa izango duen beste ordutegi bat aurkeztu ahal izango du, zerbitzuaren premiak alde batera utzi gabe. Ordutegi hau Elgoibarko Udalaren Kontratuaren Udal Arduradunak onartuko du, abian jarri aurretik.

Argiaren fluxua erregulatzeko sistema luminiaria guztietan jarrita egongo da. Funtzio horretarako ez dira erabiliko goiburuko fluxua erregulatzeko dauden gailuak; izan ere, horien funtzionamendua boltajearen murrizte programatuan oinarritzen da.

Luminariek, B Eranskinean jasotzen denaren arabera, kontrol-konfigurazioak izan beharko dituzte, eta horiek honako erregulazio sistemaren bat edo batzuk izango dituzte: DALI, 3 urratseko erregulazioa, Maila bikoitza, Aginte haria, Goiburuko erregulazioa, Argi fluxu konstantea edota Argi fluxu doigarria.

Elgoibarko Udala izango da, kontratua hasi eta lehenengo 2 asteetan, zein erregulazio mota nahi duen zehaztuko duena. Horretarako, EZEk laguntza teknikoa emango du dauden aukerei buruz. Erregulazioa dela eta, ezin izango dira zenbatetsi aurrezpen gehigarriaren kalkuluak, % 30etik gorakoak badira.

Beraz, erregulazio konfigurazioek, gehienez ere, zerbitzu normalak duen balioaren % 70era arte murriztuko dituzte argiztapen mailak.

Udalak argi fluxuaren murrizketak ezarri ahal izango ditu % 70eko zifra honetatik behera, bideen tipologiak, horien dentsitate okupazionala eta funtzionala edo murrizketa horiek justifikatuko dituzten beste parametro batzuk kontuan izanda.

Luminarien potentzia % 20 gehitu beharko da, eskatutako parametroak lortzeko ezaugarriak definitu ondoren. Horretarako, luminiariak eskatutako parametroak lortzeko zehaztu den potentzia nominalean erregulaturik instalatuko dira, eta % 20ko gehigarri hori erabili ahal izango da, beharrezkoa izanez gero.

P4 prestazioan jasota dauden luminaria guztietan (zutabeek edo makuluek eutsitakoetan), kable bat jarriko da luminariatik tranpoleraiono, kalean bertan erregulatu ahal izateko.

Argiteriarentzako Urruneko kudeaketa sistemak aginte koadroen bitartez erabiliko dira, eta horiek Elgoibarko Udalaren Kontratuaren Udal Arduradunaren onarpena izango dute beti. Urruneko kudeaketarako sistema horiek itzaltzeko eta pizteko erabili ahal izango dira. Horretarako bide emango da, Udalak, aurrez ezarrita ez dagoen pizteko/itzaltzeko beste profilen bat eskatzen badu.

Argi puntu berezi batzuetan, hobekuntza gisa, EZEk erregulazio sistema independente eta autonomoak proposatu ahal izango ditu, sentsoreen erabileran oinarritzen direnak (presentzia, mugimendu, abiadura… detektagailuak). Argi puntu horiek inola ere ezin izango dira itzali, REEIAEn ezarritakoaren arabera, eta Elgoibarko Udalak zehaztutako gutxieneko argiztapena izango dute.

Urtero, aginte koadroen hileroko kontsumoen erregistroen kopia emango dio EZEk Elgoibarko Udalari.

.

7.3.- Funtzionamenduaren jarraipena kudeatzea

EZEk aginte koadro guztien kontsumoen hileroko erregistroa egingo du, eta potentzia aktiboa eta erreaktiboa eta potentzia faktorea xehakatuko ditu. Erregistro hau kontratuak dirauen bitartean mantenduko da, eta erregistroa kontratua bukatutakoan nahiz hilero emango zaio

Elgoibarko Udalari.
EZEk INSTALAZIOAREN argiztapen mailen, efizientzia energetikoaren eta argiaren distiraren urteroko erregistroa egingo du, eta gune bakoitzaren mailak sailkatuko ditu Kanpoko Argiteriaren Instalazioetako Efizientzia Energetikoari buruzko Araudiaren arabera (REEIAE).

EZEk kanpoko argiteriaren instalazioetako potentzia faktorea, 0,9ko balioan mantenduko du, horien ezaugarriak aldatu gabe, gutxienez, aginte eta kontrol guneetan.

EZEk argiztapen mailari, efizientzia energetikoari, gaueko argiaren distirari eta argi arrotzari buruzko txostena egingo du urtero, eta ondoriorik esanguratsuenak aterako ditu. Txosten hau Elgoibarko Udalaren Kontratuaren Udal Arduradunari emango zaio.

7.4.- Instalazioaren planoak eta inbentarioa egitea

Kontratuaren lehenengo sei hilabeteetan, EZEk kanpoko argiteria publikoaren instalazio guztien planoak egingo ditu, eta elementu eta ekipamendu ororen inbentarioa egingo du:

- Argigune guztiak zenbakitzea eta kodetzea.
- Argiguneei buruzko datuak: luminarien zenbakiak, kokalekua, ezaugarriak eta markak, euskarrien ezaugarriak eta markak, lanparen ezaugarriak eta markak, instalatutako eroaleen zerrenda kualitatiboa eta kuantitatiboa eta elikadurarako aginte zentroaren kokalekua.
- Aginte koadroen inbentarioa eta eskemak, instalatutako babes eta maniobra elementuen zerrenda, motak eta marka, linea kopuruak eta zirkuituak zehaztuta.
- Inbentarioa, kalearen, sektorearen, instalatutako argigune guztien, instalatutako potentziaren, mota bakoitzeko luminarien, mota bakoitzeko euskarrien eta beste datu esanguratsu batzuen araberakoa.

Planoak eta inbentarioa Elgoibarko Udalari emango zaizkio formatu elektronikoan eta paperezko formatuan, kontratuaren lehenengo sei hilabeteak bukatutakoan.

Kontratuak indarrean dirauen bitartean, arestiko datuak eraldatzen edo aldatzen dituzten aldaketak egiten diren bakoitzean, EZEk planoak, datuak, eskemak eta inbentarioa aldatuko ditu, eta Elgoibarko Udalaren esku jarriko ditu.

Datu basearen datu alfanumerikoak eta kartografiaren datu grafikoak erabat integratu ahal izango dira kudeaketa sistema propioaren edota Udal zerbitzu teknikoen kudeaketa programak erabiltzen duten sisteman.

Lizitatzaileek haien eskaintzetan zehatz-mehatz azalduko dute erabili nahi duten sistema informatikoa, funtzionamenduaren ezaugarriak eta gorde eta kudea daitezkeen datuak.

8.- MANTENTZE ETA IKUSKATZE LANAK – P2 PRESTAZIOA

INSTALAZIOAK mantentzeko eta ikuskatzeko lanak, P2 Prestazioan jasotzen direnak, EZEk exekutatuko ditu, indarrean dagoen araudiaren zehaztapenen arabera. Hona hemen lan horiek:

- Aginte zentroak kontserbatzea eta mantentzea, baita osagai elektriko eta elektroniko guztiak ere.
- Aginte koadroen kudeaketa sistema zentralizatua kontserbatzea eta mantentzea, eta horretaz gain, sistema eguneratzea, kontratuak dirauen bitartean, aldaketak egiten badira.

- Lurpetik eta airetik jarritako kableak, konexioak, lotune kutxak, fusible kutxak, e.a. kontserbatzea eta mantentzea.
- Kutxatilak eta horien tapak kontserbatzea eta mantentzea, behar bezala torlojututa eta berdinduta egon beharko dute.
- Atakak berriro jartzea, istripuen eta beste arrazoi batzuen ondorioz hondatuta geldituko diren makuluak, zutabeak eta bestelako elementuak kendu eta ordeztea.
- Euskarrien gainean dauden luminariak, lanparak eta farolak kontserbatzea, eta halaber, horiek era egokian funtzionatzeko beharrezkoak diren elementu guztiak, hala nola, luminariaren inklinazioa, luminaria finkatzea eta lotzea, torlojuak eta azkoinak era egokian gogortzea, lanpara etxearen posizioa, itxituraren eta junturaren egoera egokitzea itxituretan, erreaktantzietan, kondentsadoreetan, konexioetan, lanparen euskarrietan, instalazio elektrikoetan eta falta daitezkeen jatorrizko elementuetan, nahiz eta horien funtzioa estetikoa bakarrik izan.
- Kanpoko argiteria publikoaren instalazioetako hartuneak era ezin hobean kontserbatzea.
- Luminariak garbitzea.
- Kanpoko argiteria publikoaren instalazioetako beste edozein elementu edo ekipamendu, arestian aipatutakoen artean ez dagoena.

Sei hilero, mantentze lanen emaitza gisa, EZEk egingo dituen lanei eta ikuskapenei eta gertatuko diren gorabeherei buruzko txostenak bidaliko dizkio Elgoibarko Udalari.

Kalte guztien berri eman beharko zaio Elgoibarko Udalari, eta hirugarrengoei dagozkien kalteen aurrekontuak eta konponketak kontratistak egin beharko ditu, Elgoibarko Udalak horretarako onarpena eman ondoren.

8.1.- Mantentze Prebentiborako Plana egitea.

EZEk, bere eskaintzan, INSTALAZIOAREN Mantentze Prebentiboari eta Ikuskapenei buruzko Plana aurkeztu beharko dio Elgoibarko Udalari, indarrean dagoen araudian oinarrituta, eta hain zuzen ere, Kanpoko Argiteriaren Instalazioetako Eraginkortasun Energetikoari buruzko Araudian (REEIAE) eta Behe Tentsioko Araudi Elektronikoan (REBT) oinarrituta. Ezarri beharrekoa den gainerako araudia, indarrean dagoena, eta Plegu honen eranskin doan Auditoria energetikoari buruzko agirian emandako gomendioak eta ondoren gutxieneko betebehartzat joko direnak ere izango dira kontuan.

Plan hau Elgoibarko Udalak onartu beharko du kontratuaren lehenengo sei hilabeteetan.

Mantentze Prebentiborako planaren baitan, instalazioak garbitzeko lanak egin beharko dira, baita margotzeko modukoak diren elementuak margotzeko lanak ere.

EZEk txostenak egingo ditu aldizka, non Mantentze Prebentiborako Planaren aurrerapen maila zehaztuko baita, zereginen eta guneen arabera xehakatuta.

8.2.- Erregulazio eta kontrol ekipamenduetan gutxieneko mantentze prebentiboa egitea

Sei hilean behin, berrikusketa bat egingo da, maniobra koadroetan eta pizteko eta itzaltzeko sistemetan jarrita dauden erloju astronomikoen funtzionamendua eta oinarrizko parametroak (tararen egiaztapena, erregulazioa, eragingailuak) egiaztatzeko, doitzeko eta horien funtzionamendua jasota uzteko.

Egiaztapen eta doikuntza hauek auditorian aurreikusitako urruneko kudeaketa sistemaren bidez egin ahal izango dira, baldin eta Elgoibarko Udalak egokitzat jotzen badu, eta betiere, jasotako informazioaren egiazkotasuna eta exekutatutako maniobren fidagarritasuna egiaztatzen badira.

Tentsioa egonkortzeko eta linea buruko argiaren fluxua murrizteko Ekipamenduen berrikusketak, gutxienez, sei hilean behin egin beharko dira, eta horretarako, honako operazio hauek egin beharko dira:

a) Ekipamenduari konektatutako kargek onartutako fase bakoitzeko gehienezko intentsitatea gainditzen ez dutela egiaztatzea. Garrantzitsua da neurri hau beti hartzea; izan ere, litekeena da ekipamenduari konektatutako kargak gehitu izana.
b) Ekipamenduaren sarrerako eta irteerako konexioak berrikustea, borneak estutzea, eta halaber, hori elikatzen duen aginte gunearenak ere bai, egon daitezkeen kontaktu akastunak zuzendu ahal izateko.
c) Ekipamenduaren funtzioak egiaztatzea.
d) Lanparen hasierako abioa edo zebatzea tentsio nominalarekin edo sarekoarekin egiten dela egiaztatzea.
e) Deskarga atmosferiko babes guztiak egiaztatzea.
f) Ekipamendua aire konprimatuarekin garbitzea.

EZEk antzemandako akatsak konponduko ditu, eta ekipamenduen egoerari buruzko txostena egingo du, berrikusketaren emaitza gisa. Txosten hau Elgoibarko Udalaren Kontratuaren Udal Arduradunari emango dio.

8.3.- Maniobra koadroetan gutxieneko mantentze prebentiboa egitea

Sei hilean behin, egoera eta funtzionamendu parametroak (tentsioa, neurketa aparailuak, kliskatutako babes automatikorik ez egotea) eta kontsumoak egiaztatuko dira aurrez aurre.

Sei hilean behin, oinarrizko parametroen (kontsumoa, berrikusketa termografikoa) egiaztapena egingo da eta oharrak jasoko dira. Garbiketa ere egingo da.

Urtean behin, elementu guztien berrikusketa orokorra egingo da, desmuntatu gabe. Armairua bera ere berrikusiko da, baita itxiturak eta bisagrak koipeztatuta daudela ere. Hona hemen kontrol operazio nagusiak:

- Maniobra eta babes aparailuen funtzionamendua.
- Eroaleen arteko eta eroaleen eta lurraren arteko isolamenduak egiaztatzea.
- Sarrerako tentsioa egiaztatzea.
- Potentziaren faktorea egiaztatzea.
- Intentsitateak faseen arabera egiaztatzea eta horiek orekatzea.
- Linearen bukaeran tentsioaren erorketa egiaztatzea.
- Diferentzialen erantzun testa.
- Lurrerako babes neurria
- Borneak estutzea.

EZEk ekipamenduen egoerari buruzko txostena egingo du, berrikusketaren emaitza gisa. Txosten hau Elgoibarko Udalaren Kontratuaren Udal Arduradunari emango dio.

8.4.- Luminarietan gutxieneko mantentze prebentiboa egitea

Sei hilean behin, bizitza erabilgarria agortu egin delako, lanparen, LED argien, fluoreszentzia hodien, erreaktantzien, zebadoreen, driver-en eta gaintentsioen aurkako babesen ordezkatze sistematikoaren egoera egiaztatuko da aurrez aurre.
Hilean behin, gune bakoitzeko argi puntu guztien gaueko funtzionamendua egiaztatuko da, eta zerbitzuz kanpo daudenak zuzendu egingo dira.

EZEk ekipamenduen egoerari buruzko txostena egingo du, berrikusketaren emaitza gisa. Txostena Elgoibarko Udalari emango dio.

Lau urtean behin, gutxienez, garbiketa bat egingo da, eta lehenengoa kontratua sinatu eta lehenengo sei hilabeteetan egingo da. Luminariak garbitzean karkasa, islagailuaren barrualdea eta itxiturak ere garbitu beharko dira. Luminaria irekien, farolen eta globoen osagai eta elementu guztiak garbitu beharko dira. Egindako jarduerei buruzko txostena bidaliko zaio Elgoibarko Udaleko Kontratuaren Udal Arduradunari.

8.5.- Linea elektrikoetan gutxieneko mantentze prebentiboa egitea

Sei hilean behin, bertatik bertara egiaztatuko da egoera eta funtzionamenduaren parametroak (kanalizazioak eta berrikusketa termografiko orokorra).
EZEk ekipamenduen egoerari buruzko txostena egingo du, berrikusketaren emaitza gisa. Txosten hau Elgoibarko Udalaren Kontratuaren Udal Arduradunari emango dio.

8.6.- INSTALAZIOA ikuskatzea

EZEk gaueko nahiz eguneko Ikuskapen Plana aurkeztuko du INSTALAZIOAREN funtzionamendua nahiz euskarri, armairu, luminaria, kutxatilen estalki, konexio guztien, eta oro har, kanpoko argiteria publikoaren instalazioak osatzen dituzten elementu edo osagai guztien egoera zaintzeko.

Era berean, EZEk zuhaitzek edo landareek edo beste edozein oztopok kaltetutako argi puntu guztiak aurkitu beharko ditu, baldin eta horien berezko funtzioak nabarmenki eraldatzen edo gutxitzen badira.

Gune guztia ikuskatzeko epea hiru hilabetekoa izango da, eta Udalari txosten bat aurkeztu beharko zaio antzemandako akatsak konpontzeko egin diren lanen emaitzekin.

Ikuskapenak EZEk prestatutako programaren arabera egingo dira, programa Udalak onartu beharko du aldez aurretik.

Elgoibarko Udalak, une oro, INSTALAZIOAREN erabilera, ustiapena, mantentze lanak eta kontserbazioa ikuskatzeko eskumena izango du. Hori dela eta, EZEk INSTALAZIORA sartzeko aukera eman beharko dio Elgoibarko Udalari, eta haren esku jarri beharko ditu beharrezkoak diren baliabide materialak zein giza baliabideak.

Instalazioetako ikuskapen guztiak EZEren kontura izango dira. EZE izango da ikuskapenen kalitatearen arduradun bakarra, eta egokiak diren neurri guztiak hartu beharko ditu, ikuskatzaileek haien misioa gogobetetasun osoz egin dezaten. Horretaz gain, zigorrak ezarri ahal izango dira, baldin eta, Udal langileek egingo dituzten egiaztapenen bidez, edo bestela, Udaltzaingoaren, gaueko zaindarien edo bizilagunen bitartez, antzematen baldin bada egindako

